

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5629

EBAZPENA, 2021eko urriaren 27koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bitartez onartu egiten baita «Asociación de vecinos Sestao Activo para la defensa de las zonas verdes y espacios de uso y utilidad pública de Sestao»k egindako eskaera, Sestaoko (Bizkaia) «La Naval» industriagunea Monumentu Multzokategoriako babes bereziko kultura-ondasun izendatzeko espedientean alegazioak egiteko epea luzatzeari dagokionez.

2021eko irailaren 30ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Kulturako sailburuordearen 2021eko irailaren 20ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Sestaoko (Bizkaia) «La Naval» industriagunea babes bereziko kultura-ondasun izendatzeko espedienteari, Monumentu Multzokategorian, eta jendaurrean eta interesdunen entzunaldi-pean jartzen baita espedientea.

Ebazpen horrek ezartzen duenez, alegazioak egin eta egokitzen jotzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egunekoa da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2021eko urriaren 22an, «Asociación de vecinos de Sestao Activo para la defensa de zonas verdes y espacios de uso y utilidad pública de Sestao»k alegazioak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontuan hartuta eskabidea epearen barruan aurkeztu dela, alegazioak ezarritako epean aurkezteko zailtasunak daudela eta ez zaiela kalterik egiten hirugarrenen eskubideei, artikuluko horretan ezarritako gehieneko luzapen-epeari jarraituz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Asociación de vecinos Sestao Activo para la defensa de las zonas verdes y espacios de uso y utilidad pública de Sestao»k aurkeztutako eskabidea onartzea, alegazioak egiteko epea luzatzeko. Beraz, 10 eguneko epea ematen da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, adieraziz ebazpenaren aurka ezin dela errekurtsorik aurkeztu, izapide hutsa delako.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.